



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA
ZUZENBIDEA

**Adin txikikoak eta Internet:
familien kezka eta erantzukizuna**

*Rakel Gamito, Amaia Arroyo,
Irune Corres eta Irati León*

116-121 or.
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.02.16>

ANTOLATZAILEAK:



BABESLEAK:



PAYS BASQUE
CONSEIL GÉNÉRAL
CONSELLERIA DE GOVERNACION
CONSELLERIA D'ADMINISTRACIÓ

EUSKO
IKASKUNTZA
Aurkezta Jeltzalea

UDALBILTZA
PARTZIENGÓA

eke icb
Eskola Komunitarioa
Institutu Kultura Berria

LAGUNTZAILEAK:



upna

Universidad Pública del País Vasco
Universitatea (Unibertsitatea) Pribilegia

Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Universidad de Navarra
Universitatea de Nafarroa

Mondragon
Unibertsitatea

ESTIA
INSTITUTE OF TECHNOLOGY

Adin txikikoak eta Internet: familien kezka eta erantzukizuna

Gamito, Rakel^{1,2}; Arroyo, Amaia²; Corres, Irune¹ eta León, Iراتی¹
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)¹, Udal Euskal Unibertsitatea (UEU)²
rakel.gamito@ehu.eus

Laburpena

Internet erabat integratuta dago gure jendartean eta aurrerapenek eragin zuzena izan dute adin txikikoen egunerokotasunean. Zentzu horretan, familia eragile erabakigarria da haur eta nerabeen alfabetatze eta ongizate digitalean. Horregatik, ikerlanak Lehen Hezkuntzako ikasleen familien bitartekaritza-lana aztertzen du, 18 kide heldu protagonista izan duten bi eztabaidea-taldeen bitartez. Emaitzek agerian uzten dute gaur egungo agertoki digitalari buruzko kezka. Familiek defendatzen dute funtsezko dela etxean erantzukizun-kultura lantzea eta garatzea. Hala ere, adin txikikoen Interneten erabilera-ohiturei eta biziñenei buruzko ikuspegia edota ezagutza oso partziala da.

Hitz gakoak: Internet, segurtasuna, adin txikikoak, familia, bitartekaritza.

Abstract

Internet is fully integrated in our society. The advances have had a special impact on minor child and the family is a key factor in the digital literacy of children and adolescents. For this reason, the study analyses the mediation work of Primary Education student's families through two discussion groups led by 18 adults. The results reveal concerns about the current digital stage. Families' voices argue that it is essential to work and develop a culture of responsibility at home. However, the view and the knowledge of the usage habits and experiences of the minor child on the Internet is very partial.

Keywords: Internet, security, minor child, family, mediation.

1. Sarrera eta motibazioa

Internet egunerokotasunaren bizkar hezur bilakatu da. Dagoeneko zaila da bizitza konektibitaterik gabe imajinatzea, munduko sarerik handienak eskaintzen dizkigun ezagutza-, komunikazio- eta aisialdi-aukera amaigabea momentu oro poltsikoan eskuragarri izatera ohitu baikara. Informazioaren jendartea nonahiko pantaila globalean garatzen da (Castells, 2005; Lipovetsky eta Serroy, 2009).

Testuinguru digital horretan, online segurtasunari buruzko ardura areagotu da (Torrecillas-Lacave, Vázquez-Barrio, eta Monteaguado-Baradalla, 2017). Interneten erabilera orokorragoa den heinean, funtsezko da Internet erabiltzaileak modu autonomoan eta seguruan nabigatzen duten herritar etiko eta konprometituak izatea.

Adin txikikoen kasuan, aro digitalean jaio dira eta Internet euren bizitzen protagonistako bat da, garapen eta sozializazio prozeduren oinarri (García, 2016). Gaur egun Interneten ohiko erabiltzaile izaten hasteko adina 7 urteetan kokatzen da (Mascheroni eta Cuman, 2014). Horregatik, gero eta garrantzitsuagoa da konektibitatearen gatazkei buruz hausnartzea eta txikitatik sarearen erabilera sortu ditzakeen gatazka psikosozial edota emozionalak kudeatzeko gaitasunak garatzea (Gamito, Aristizabal, Olasolo, eta Vizcarra, 2017; Jiménez, Garmendia, eta Casado, 2015; Livingstone, 2018).

Zentzu horretan, gazteek Interneten erabilera egokiari buruzko formazioa eta helduen laguntza eskatzen dute (Gamito, Aristizabal, Vizcarra eta Tresserras, 2017; INTEF, 2016). Epe luzerako hezkuntzaren alde egin behar da: txikitatik etxean Interneten erabilera arduratsua eta online elkarbizitza positiboa lantzeko espazioak eraiki eta adin txikikoen burujabetza digitala bermatu (Gómez-Ortiz, Del Rey, Casas, eta Ortega-Ruiz, 2014; Lareki, Martínez de Moretin, Altuna, eta Amenabar, 2017). Funtsean, ezagutza eta gaitasun kritikoa Interneten arriskuen prebentzioaren eta erabilera seguruaren oinarriak dira.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Adin txikikoen eta Interneten arteko harreman konplexuan agente ugarik parte hartzen duten arren, familia oinarrizko hezkuntza-agentea da alor digitalean zein horri lotutako gaitasunen garapenean. Testuinguru hurbilaren eskuistik jasotzen den lagunza eta eduki positiboek baldintzatzen dituzte haur eta nerabeek Interneten eskura dezaketen onura kopurua (Smahel eta Wright, 2014).

Alegia, bizitzaren beste zenbait esparrutan bezala, etxeko giroa eta gurasoen implikazioa funtsezko eragileak dira familiako gazteenen gaitasun digitalaren eta Interneten erabilera seguruaren sustapenean (Livingstone, Mascheroni, eta Staksrud, 2015; Ortega-Barón, Buelga, eta Cava, 2016). Helduen ikuskapena eta lagunza Interneten erabilerari lotutako arriskuak ekidin ditzakete edo, gutxienez, horien ondorio negatiboak txikiagotu (Rial eta Gómez, 2018).

Hala ere, online egoera gatazkatsuaren aurrean, adin txikiko askok berdinengana jotzen dute, helduen erantzun negatiboaren beldur (Ardila, Marín, eta Pardo, 2014). Ondorioz, ohikoa da gazteek mundu osora konektatuta dagoen sarearen erabilera-araauak heldutasun nahikorik gabeko testuinguruaren ikastea eta horrek ohitura arriskutsuak barneratzea eragin dezake (Besoli, Palomas, eta Chamarro, 2018).

Horregatik, adin txikikoen Interneten erabilera-ohiturek helduen arreta merezi dute eta inoiz baino garrantzitsuagoa da gurasoek, online eremuan ere, erreferente-papera hartzea (Torrecillas eta Monteaguado, 2016). Gainera, heziketa digitala txikitatik hastea komeni da. Haur eta nerabeen adinak aurrera egin ahala, gailuen erabilera gero eta pribatuagoa da, familiarekin komunikazioa urriagoa da eta erreferentziazko pertsona helduen eragin-indarra txikiagoa. Hori guztiak helduen bitartekaritza-lanak zaitzen du (López-Sánchez eta García del Castillo, 2017).

Familiei haur eta nerabeen bitartekaritza digitalean laguntzeko asmoz, Lehen Hezkuntzako etapan seme-alabak dituzten familiek adin txikikoen errealtitate digitalari eta Interneten erabilera arduratsuari buruz duten pertzepzioa aztertu da. Hortaz, lanaren helburuak hauek izan dira:

- Lehen Hezkuntzako ikasleen 18 familiek adin txikikoen Interneten erabilera-ohiturei eta biziñenei buruz duten ikuspegia analizatzea.
- Lehen Hezkuntzako ikasleen 18 familiek Interneten arriskuen prebentzioari, pribatutasunaren kudeaketari eta nortasun digitalaren garrantziari buruz adierazten duten ezagutza-, interes- eta ardura-maila ezagutzea.

3. Ikerketaren muina

Aztertu nahi izan den errealtitatearen ezagutza eraikitzeko eta errealtitate horren eraldaketarako baliabideen bilaketan aurrera egiteko, funtsezkoia izan da familiek aztergaiari buruz duten ikuspegia jasotzea eta, horrela, ikerketaren partaide bilakatzea (Pérez-Serrano, 2014).

Horretarako, Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoen ekarpenak modu kualitatiboan jaso dira, bi eztabaidea-taldeen bitartez. Hemen biltzen dena adin txikikoen Interneten arriskuei buruzko pertzepzioa ezagutu nahi duen Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHUko) tesi baten zati osagarria da. Zalantzarik gabe, ikerketaren ahots nagusia Lehen Hezkuntzako ikasleena izan da (Gamito, Aristizabal, eta Vizcarra, 2019; Gamito et al., 2017a; Gamito et al., 2017b), baina analisiak gaiari buruz familiek eta profesionalek duten ikuspegia jasotzearen beharra sortu du.

3.1. Parte-hartzaileak

Eztabaidea-taldeak EAEko bi herrian egin dira eta parte-hartzaileak herrietako ikastetxe publiko zein pribatuetako Lehen Hezkuntzako ikasleen familiako kide helduak izan dira. Guztira 18 lagunek hartu dute parte, 15 emakume eta 3 gizon. Lehenengo taldeak 10 pertsona bildu ditu eta 8, ordea, bigarrenak.

Partaideen ikuspegi orokorra gurasoena izan bada ere, zortzik ikuspegi partekatu batetik hartu dute parte, hezkuntza-arloko profesionalak ere badirelako (irakaskuntza, gizarte-zerbitzuak eta mendekotasunen prebentziorako zerbitzua).

Eztabaida taldeek EAEko bi herrietako udalek antolatutako formazio-ekimen bat izan dute abiapuntu eta parte-hartzea irekia izan da. Beraz, herrien hautaketa-irizpidea udalek gaiarekiko erakutsi duten interesa eta ardura izan da eta parte-hartzaileena, aldiz, formazio-ekimenean parte hartzeko prestutasuna.

3.2. Tresnak

Eztabaida-taldeek elkarrekintzako giroa ahalbidetzen dute, non testigantzak, ideiak, hausnarketa-prozesuak eta kalitate-datuak sortu diren (Flick, 2004; Krueger, 1991). Horrela, teknika horri esker posiblea izan da parte-hartzaileen pertzepzio, sentimendu eta jarrerei buruzko informazioa lortzea. Bestetik, landa-ohar pertsonalek aukera ematen dute parte-hartzaileen arrazoia (zer esaten duten) eta bihotzetik ateratakoa (nola eta zergatik esaten den) biltzeko (Rekalde, Vizcarra, eta Macazaga, 2014).

Beraz, datuen bilketa erregistratzeko, tresna hauek erabili dira:

- Eztabaida-taldeak eta horien transkribapenak. Gai berari buruz parte-hartzaileen (familien) esperientziak, hausnarketak eta iritziak jasotzeko bilera bi antolatu dira. Eztabaida gidatzeko, erdi egituratutako gidoia diseinatu eta jarraitu da. Bertan proposatutako itemak bost multzo handietan biltzen dira: adin txikikoen harremana Internetekin (Internetera sarbidea eta erabilera), esperientzia gatazkatsuak sarean eta konektibitateari buruzko arriskuei buruzko ezagutza (Interneten arriskuak), etxeko kontrol-estrategiak (prebentzio-teknikak), familiaren zeregina bitartekaritza digitalean (familiaren bitartekaritza) eta, azkenik, Interneten erabilera segurua bermatzeko eskolak bete behar duen papera (eskolaren implikazioa). Itemak *ad hoc* sortu dira eta momentu oro erantzun irekiak zein parte-hartzailerentzat garrantzitsuak diren bestelako edozein alderdi ere bildu dira. Eztabaida-taldeetan Lehen Hezkuntzako ikasleen familia-kide helduek harti dute parte. Parte-hartzaileen adierazpen eta testigantzak audioz grabatu dira eta, ondoren, transkribatu.
- Eztabaiden landa-ohar pertsonalak. Talde-eztabaiden garapenari buruzko narrazioak bildu dira. Bertan, sentsazio pertsonalak, parte-hartza, parte-hartzaileen jarrerek, interakzio-motak, saioen helburuen lorpena, etab. jaso dira. Landa-oharrak ikerketa-taldeko kide batek jaso ditu eztabaida-talde bakoitzaren amaieran. Prozesu osoan landa-oharrak audio-transkribapenen informazioarekin osatu dira.

3.3. Procedura

Xede nagusia aztertutako errealtitateari buruzko ahalik eta iritzi- zein ikuspuntu-aukera zabalena jasotzea izan da. Horretarako, EAEko bi herritan Lehen Hezkuntzako ikasleen familiak protagonista izan dituzten eztabaida-taldeak antolatu dira.

Eztabaida-taldeek EAEko bi herrietako udalek antolatutako formazio-ekimenak izan dute abiapuntu. Udalekin hasierako harremanak egin ostean, lan-plangintza adostu da eta ekimenetan parte hartzeko deialdien zabalkundea egin da. Parte-hartza, beraz, librea izan da bi kasuetan.

Aipatutako formazio-ekimenen lehenengo egunean egin dira eztabaida-taldeak. Orduan, ikastaroaren oinarritzko informazioarekin batera, ikerketaren nondik norakoak eta eztabaida-taldearen helburua azaldu dira. Bertaratutako parte-hartzaile guztiekin baimen-informatuak sinatu dute.

Eztabaida-talde batetik bestera gutxi gorabehera hiru hilabeteko tartea egon da. Bakoitzaren iraupena bi ordu ingurukoa izan da. Gidaritzaren arduraduna ikerketa-taldeko kide bat izan da eta, horretarako, aldez aurrelik *ad hoc* diseinatutako erdi egituratutako gidoia izan du oinarri.

Parte-hartzaileen askotariko testigantzak eta adierazpenak audio-grabagailu digital baten bitartez erregistratu dira. Gainera, kasuan kasu, ikerketa-taldeko kide batek eztabaidaren

garapenari buruzko landa-oharrak ere jaso ditu. Procedura bera bi eztabaidea-taldeetan errepikatua da.

3.4. Datuen analisia

Azkenik, informazioaren analisia etapa garrantzitsua da ikerketa kualitatiboan, landa-lanarekin batera egiten baita (Goetz eta Lecompte, 1988). Beraz, ikerketa-prozesu osoan zehar jasotako ideiak eta idea-asoziazioak sistematikoki erregistratu dira eta bildutako datuen analisia prozesu dinamikoa eta sistematikoa bat izan da. Horrek eskatu du fenomenoak gorpuzten dituzten kontzeptuak ezagutzea, ordenatzea eta sailkatzea hainbat kategoriatan (Rapley, 2014).

Horretarako, ikerketa-taldeak kategoria-sistema sortu du. Kategoria-sisteman helburuaren aztergaiaren ardatzak (dimentsioak), gai nagusiak (kategoriak) eta gai horiei lotutako kontzeptuak (azpikategoriak) zehaztu dira (Coffey eta Atkinson, 2003). Kategoriak zein azpikategoriak zehazteko kodifikazio tematikoa (indukziozko irizpideen arabera) eta gailentzen den kodifikazioa (dedukziozko irizpideen arabera) erabili dira (Wood eta Smith, 2018). Alegia, sistema kategorialak, gaiari buruz egindako berrikuspen teorikoa zein tresnen bidez landu izan diren edukiak oinarri izateaz gain, hasieran espero ez ziren ekarpenen zenbait alderdi ere bildu dituzte.

4. Eztabaidea eta ondorioak

Familia parte-hartzaleei ahotsa eman zaienean, argi dago azken urteetako aurrerapen teknologikoez eta horrek bizimoduan izan duen eraginaz jabe direla. Badakite Internet erabat normalizatua dagoela, sarbidea gero eta goiztiarragoa dela eta gailu nagusia telefono mugikorra dela. Zentzu horretan, parte-hartzaleen pertzepzioa, hein handi batean, Net Children Go Mobile (Mascheroni eta Cuman, 2014) bezalako europar ikerketen emaitzakin bat dator.

Hala ere, agerikoa da Lehen Hezkuntzako ikasleen familia parte-hartzaleek adin txikikoen online jarduerak zehazteko zailtasunak dituztela (Bryne, Katz, Lee, Linz, eta Mcilarath, 2014). Badakite erabilera gehienbat ludikoa eta komunikatiboa dela, baina gutxik ezagutzen dituzte online jolasen edota sare sozial arrakastatsuaren xehetasunak. Gainera, zerrendatzen dituzten edukiak nahiko aldentzen dira Lehen Hezkuntzako ikasleek adierazten ohi dituzten interes digitaletatik (Gamito et al., 2017a; Gamito et al., 2017b).

Interneten arriskuak aipatzerakoan, ardura handia adierazten dute eztabaidea-taldeetako familia parte-hartzaleek, batez ere online egoera gatazkatsuei aurre egiteko adin txikikoek duten gaitasun ezarekiko. Hala eta guztiz ere, arriskuen errealityeari buruzko pertzepzioa eta, ondorioz, prestakuntza partziala da (Mendez eta Delgado, 2016). Parte-hartzaleek Blum-Ross eta Livingston-ekin (2016) bat egin dute eta garrantzi handia eskaintzen diote pantailen bidez jasotzen diren edukien eta edukien izaerari. Ziberjazapena eta gailu digitalen gehiegizko erabilera ere haur eta gazte askotan errepikatzen diren gatazkatzat hartzen dituzte. Aldiz, Pacheco, Lozano eta González-en (2018) lanen emaitzen kontra, uste dute sexting-a edota pertsona ezezagunekin harremanak izatea ez direla ohiko praktikak adin txikikoen artean.

Egoera horren aurrean, parte-hartzaleek eskatzen dute segurtasun digitalaren arloan kontzientzia eta ahalduntzea. Eskolan online elkarbizitza lantzeko espazioak eskaini behar direla aldarrikatzen dute eta azpimarratzen dute, haur eta nerabeen Interneten erabilera segura bermatzeko, funtsezkoa dela etxeen erantzukizun-kultura lantzea eta garatzea.

Azken finean, eta Martínez eta Casado-rekin (2018) bat eginez, familiak adin txikikoen online ongizateagatik arduratuta daude eta, horri erantzuteko, bitartekari digital aktiboa izan behar da.

Lan honen erronka eta, era berean, ekarpen handienetako bat parte-hartzaleen seme/alaben hezkuntza-etapa izan da: Lehen Hezkuntza. Etorkizunean, ezinbestekoa izango da gure praktikari beste ikuspuntu batzuk emango dizkioten sareetan parte hartzea, baita hezkuntza-komunitatearekin iraunkorrapak izango diren prozesuak aktibatzea ere. Horretarako, irakasleen ikuspegia ere jaso beharko da eta horien formazioan sakondu.

5. Erreferentziak

- Ardila, C., Marín, H., eta Pardo, S. (2014). Cyberbullying y Facebook: realidad en la virtualidad. *Nodos y nudos*, 4(37), 43-52. doi: 10.17227/01224328.3123
- Besoli, G., Palomas, N., eta Chamarro, A. (2018). Uso del móvil en padres, niños y adolescentes: Creencias acerca de sus riesgos y beneficios. Aloma. *Revista de Psicología, Ciències de l'Educació i de l'Esport*, 36(1), 29-39. <http://www.revistaaloma.net/index.php/aloma/article/view/328-tik> berreskuratua.
- Blum-Ross, A., eta Livingstone, S. (2016). *Families and screen time: Current advice and emerging research. Media Policy Brief 17*. Londres: Media Policy Project, London School of Economics and Political Science. <http://eprints.lse.ac.uk/66927/1/Policy%20Brief%202017-%20Families%20%20Screen%20Time.pdf> -tik berreskuratua.
- Bryne, S., Katz, S. J., Lee, T., Linz, D., eta Mcilarath, M. (2014). Peers, Predators, and Porn: Predicting Parental Underestimation of Children's Risky Online Experiences. *Journal of Computer-Mediated Communication*, 19(2), 215-231. doi: 10.1111/jcc4.12040
- Castells, M. (2005). *La era de la información: Economía, sociedad y cultura vol. I: la sociedad red (3 ed.)*. Madril: Alianza Editorial.
- Coffey, A., eta Atkinson, P. (2003). *Encontrar el sentido a los datos cualitativos*. Medellín: Contus.
- Flick, U. (2004). *Introducción a la investigación cualitativa*. Madril: Morata.
- Gamito, R., Aristizabal, P., Olasolo, M., eta Vizcarra, M. T. (2017a). La necesidad de trabajar los riesgos de internet en el aula. *Profesorado, revista de currículum y formación de profesorado*, 21(3), 409-426. <https://recyt.fecyt.es/index.php/profesorado/article/view/59805-tik> berreskuratua.
- Gamito, R., Aristizabal, P., eta Vizcarra, M. T. (2019). Lehen Hezkuntzan Interneten erabilera arduratsua lantzeko formazio-ekintza. *Uztaro*, 108, 5-26. doi: 10.26876/uztaro.108.2019.1
- Gamito, R., Aristizabal, M. P., Vizcarra, M. T., Tresserras, A. (2017b). La relevancia de trabajar el uso crítico y seguro de internet en el ámbito escolar como clave para fortalecer la competencia digital. *Fonseca, Journal of communication*, 15, 11-25. doi: 10.14201/fjc2017151125
- García, N. (2016). Actividades cotidianas de los jóvenes en Internet y victimización por malware. *IDP: revista de Internet, derecho y política*, 22, 59-72. <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=78846481005-tik> berreskuratua.
- Goetz, J. P., eta LeCompte, M. D. (1988). *Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Madril: Morata.
- Gómez-Ortiz, O., del Rey, R., Casas, J. A., eta Ortega-Ruiz, R. (2014). Parenting styles and bullying involvement. *Culture and Education*, 26(1), 132-158. doi: 10.1080/11356405.2014.908665
- INTEF, Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y de Formación de Profesorado (2016). *Uso de las tecnologías por niños de hasta 8 años. Un estudio cualitativo en siete países*. Madril: INTEF https://intef.es/wp-content/uploads/2016/03/2016_0220-Informe_TIC_ninos_8years-INTEF.pdf-tik berreskuratua.
- Jiménez, E., Garmendia, M., eta Casado, M. A. (2015). Percepción de los y las menores de la mediación parental respecto a los riesgos en internet. *Revista Latina de Comunicación Social*, 70, 49-68. doi: 10.4185/RLCS-2015-1034
- Krueger, R. A. (1991). *El grupo de discusión. Guía práctica para investigación aplicada*. Madril: Piramide.
- Lareki, A., Martínez de Moretin, J. I., Altuna, J., eta Amenabar, N. (2017). Teenagers' perception of risk behaviors regarding digital technologies. *Computers in Human Behavior*, 68, 395-402. doi: 10.1016/j.chb.2016.12.004
- Lipovetsky, G., eta Serroy, J. (2009). *La pantalla global: Cultura mediática y cine en la era hipermoderna*. Bartzelona: Anagrama.
- Livingstone, S. (2018). La vida online de la infancia. In E. Jiménez, M. Garmendia, eta M. A. Casado (koordk.), *Entre selfies y whatsapp. Oportunidades y riesgos para la infancia y la adolescencia conectada (13-29 orr.)*. Bartzelona: Gedisa.

- Livingstone, S., Mascheroni, G., eta Staksrud, E. (2015). *Developing a framework for researching children's online risks and opportunities in Europe*. Londres: LSE. <http://eprints.lse.ac.uk/64470/-tik berreskuratua>.
- López-Sánchez, C., eta García del Castillo, J. A. (2017). La familia como mediadora ante la brecha digital: repercusión en la autoridad. *Revista Colombiana de Ciencias Sociales*, 8(1), 108- 124. doi: 10.21501/22161201.1928
- Martínez, G., eta Casado, M. A. (2018). La responsabilidad de las madres y de los padres españoles como mediadores en el uso de Internet que hacen los menores: evolución y nuevos retos. En E. Jiménez, M. Garmendia, y M. A. Casado (coords.), *Entre selfies y whatsapp. Oportunidades y riesgos para la infancia y la adolescencia conectada* (173-188 orr.). Bartzelona: Gedisa.
- Mascheroni, G., eta Cuman, A. (2014). *Net Children Go Mobile: Final report (with country fact sheets). Deliverables D6.4. and D5.2.* Milan: Educatt. <http://netchildrengomobile.eu/reports/-tik berreskuratua>.
- Méndez, J. M., eta Delgado, M. (2016). Las TIC en centros de Educación Primaria y Secundaria de Andalucía. Un estudio de casos a partir de buenas prácticas. *Digital Education Review*, 29, 134-165. <http://revistes.ub.edu/index.php/der/article/view/14009-tik berreskuratua>.
- Pacheco, B. M., Lozano, J. L., eta González, N. (2018). Diagnóstico de utilización de Redes sociales: el factor riesgo para el adolescente. *Revista Iberoamericana para la Investigación y el Desarrollo Educativo*, 16(8). doi: 10.23913/ride.v8i16.334
- Pérez-Serrano, G. (2014). *Investigación cualitativa. Retos e interrogantes. I. Métodos*. Madril: La Muralla.
- Ortega-Barón, J., Buelga, S., eta Cava, M. J. (2016). The Influence of School Climate and Family Climate among Adolescents Victims of Cyberbullying. *Comunicar*, 14(46), 57-65. doi: 10.3916/C46-2016-06
- Rapley, T. (2014). *Los análisis de la conversación, del discuros y de documentos en Investigación Cualitativa*. Madril: Morata.
- Rekalde, I., Vizcarra, M. T., eta Macazaga, A. (2014). La observación como estrategia de investigación para construir contextos de aprendizaje y fomentar procesos participativos. *Educación XXI: Revista de la Facultad de Educación*, 17(1), 201-220. doi: 10.5944/educxx1.17.1.1074
- Rial, A., eta Gómez, P. (2018). Adolescentes y uso problemático de Internet. Claves para entender y prevenir. In E. Jiménez, M. Garmendia, eta M. A. Casado (koordk.), *Entre selfies y whatsapp. Oportunidades y riesgos para la infancia y la adolescencia conectada* (157-172 orr.). Bartzelona: Gedisa.
- Smahel, D., eta Wright, M. F. (2014). *The meaning of online problematic situations for children: results of qualitative cross-cultural investigation in nine European countries*. Londres: LSE. <http://eprints.lse.ac.uk/56972/-tik berreskuratua>.
- Torrecillas, T., eta Monteagudo, L. (2016). Educar en hogares multipantalla. Un reto para familias con hijos conectados. In L. Núñez eta T. Torrecillas (Koordk.), *Autoridad familiar y competencia digital: Investigación sobre la autoridad doméstica en la sociedad digital* (63-78 orr.). Madril: Universitas. http://dspace.ceu.es/bitstream/10637/8437/1/Autoridad_LNu%C3%B1ez%26TTorrecillas_2016.pdf-tik berreskuratua.
- Torrecillas-Lacave, T., Vázquez-Barrio, T., eta Monteaguado-Barandalla, L. (2017). Percepción de los padres sobre el empoderamiento digital de las familias en hogares hiperconectados. *El Profesional de la Información*, 26(1), 97-104. doi: 10.3145/epi.2017.ene.10
- Wood, P., eta Smith, J. (2018). *Investigar en educación. Conceptos básicos y metodología para desarrollar proyectos de investigación*. Madril: Narcea.